

GAZTETXOEN AISIALDIA -2018-

AURKIBIDEA

- 1.- SARRERA / AURREKARIAK**
- 2.- HELBURUAK**
- 3.- BAILABIDEAK**
- 4.- GARAPENA - KRONOGRAMA**
- 5.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK**
- 6.- AURREKONTUA**

I. ERANSKINA: Gernika-Lumoko Udala eta Urdaibai Rugby Eskolaren arteko 2017ko hitzarmenaren eredia

II. ERANSKINA: “Kalean olgetan” kanpainarako txostena.

1.- SARRERA / AURREKARIAK

Gaztetxoaren aisialdiarekin lotuta dagoen proiektu bati buruz ari gara, aspaldi Euskara Zerbitzuak Gazte Sailarekin elkarlanean abian jarritakoa.

1999ra arte “Gizarte Etxeko Gaztelekua”-n Kosnoaga Gazte Taldearen bitartez betetzen izan zen jarduera, sasoi horretan eten egin zen, Parrokiako arduradunek Gizarte Etxea bota eta eraikuntza berri bat egitea erabaki zutenean. Egoera horri irtenbide bat aurkitu nahian, hara non 2001eko udan “URDAIBAI RUGBY ESKOLA” (URE Elkarte) sortu zen, helburu berberak izanik: gaztetxoaren aisialdirako asteburuetan eskaintza berezia egitea eta euskararen sustapena bideratzea.

Gaztedi Arloko Arduradunak eta Euskara Zerbitzuko Arduradunak URE elkartekoekin zenbait bilkura egin ostean, 2001eko irailetik abendurako tartean ekin zioten, esperientzia benetan baikorra izanik.

Hori horrela, zutabeak ondo finkatuta zeudelakoan, 2002 urterako hitzarmen berezi bat sinatzea adostu zen eta, harrez gero, indarrean egon da **“Asteburuetakoa aisialdia”** delako egitasmoa, urtero bidezko egokipenak eginda. Bidean txertatu zen **“Gaztelekuko zapatuak”** deituriko egitasmo berezia 2006an, nagusitxoagoei zuzendua. Helburu nagusia, euskararen erabilpena gaztetxoaren artean areagotzea; zeharkakoa, astialdirako urte osoko egitaraua eta topagunea eratzea.

Urteak joan urteak etorri, azpi-egitasmoak txertatuz joan gara eta asteburu eta opor sasoietarako plan orokorra moldatu izan da urte osorako. Dinamika horrexerri eutsi gura diogu 2018an **“GAZTETXOEN AISIALDIA 2017”** egitasmoa borobilduz (ikus **I. ERANSKINA**, URE elkartearekin sinatzekoa den hitzarmenaren zirriborroa)

Hori horrela, baina, 2016ko kale neurketaren datuengatik kezkatuta esperientzia pilotu bat garatu ahal izango dugu 2017ko azken hiruhilekoan, **“Kalean Olgetan”** lemapekoa eta 5-12 urte bitarteko haurrengan maila informalean eragiteko asmatua. Izandako emaitza oso onak kontuan, urte osoan garatzeko ahalegin berezia egiteko apostua egin dugu 2018rako. Argigarria dugu **II. ERANSKINA** (kanpaina hori abian jartzeko oinarritzko hausnarketa).

2.- HELBURUAK

Indarrean daukagun ESEPeren arabera 2018rako eratutako kudeaketa Planean, aintzat hartuko dira zehatz-mehatz hurrengo helburu, neurri eta ekintzak egitasmo honi dagokionean:

- **Helburu Estrategikoa: 2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko, auzogintza eta zerbitzugintza.**
- **Esparrua eta helburua:**

7. Aisia eta kirola

7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea (Toki erakundeak)

7.1.1. Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan

- 7.1.1.1.- Haurrentzako ekintzak antolatu: udako eskaintza, opor garaietakoak, udako ludoteka,

7.1.3. Aisialdiko eskaintza modu zabalean ulertuz (zinema, antzerkia, literatura, telebista, musika, etab.), euskarazko ekimenak adin tarte guztietako herritarrei zuzentzea

- 7.1.3.3.- Urte osoko gazte-programa planifikatu: "Asteburuetako aisialdia" eta "Gaztelekuko zapatuak"

3.- GARAPENA - KRONOGRAMA

Lau atal izango ditu egitasmo orokor honek:

- a).- Opor sasoiko kaleko kanpamenduak:
 - 5-12 urte bitarteko haurrei zuzendua.
 - Astelehenetik barikura
 - Egun erdiko iraupena izango dute jarduerak.
 - Aste santuan, uztailean, gabonetan.
- b).- "Kalean olgetan" deiturikoa:
 - 5/12 urte bitarteko haurrei zuzendua.
 - Astegunetan hiru egunez maila informalean eragitekoa (plazetan eta jolas parkeetan).
 - Aurrekontuaren araberrako kronograma finkatuko da.

c).- “Gaztelekuko zapatu bereziak”:

- 13-16 urte bitarteko gaztetxoei zuzendua.
- Zapatueta (20:00-24:00); lau orduko iraupena.
- Zapatu guztietan (uztaila eta abuztua kanpo utzita).

d).- “Gaztelekuko eguneroko dinamika”:

- 13-16 urte bitarteko haurrei zuzendua.
- Astelehenetik barikura, urte osoan (abuztuan izan ezik).
- Arratsaldeko 5etatik 8etara.

KRONOGRAMA

Jarduera orokorrak	Urt	Ots	Mar	Apir	Mai	Eka	Uzt	Irai	Urr	Az	Aben
Hitzarmenak sinatu											
Jarraipenerako batzarrak											
Balorazio txostenak											
5-12 urte bitartekoentzat											
Kalean olgetan kanpaina (eratu)											
Jolas parkeetan burutzea											
5-12 urte bitartekoentzat Kaleko kanpamenduak											
Aste Santuan (4 egun jarraian)											
Udako kaleko kanpamenduak											
Gabonetako jolas parkea (5 egun jarraian)											
13-16 urte bitartekoentzat (Gaztelekua-dinamizazioa eta zapatuak)											
Gaztelekuko kudeaketa											
Gaztelekuko dinamizazioa (tailerrak, jolasak, materiala,...)											
Zapatuak (guztietan ekitaldi bereziak)											
Jaialdi bereziak (hilean behin)											

4.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Eragileak:

- Euskara Zerbitzua.
- Gaztedia Saila.
- “Urdaibai Rugby Eskola” aisialdirako elkarteak.

Giza-baliabideak:

- HNT teknikaria.
- Gazte informatzailea.
- URE Elkarteko koordinatzailea eta zazpi monitore.
- Diruzkoak: Gaztedia Sailarenak.

Azpiegitura:

- Gaztelekua (Kultur Etxea Fundazioa) eta bertako material guztia (fonoteka, bideoteka, argitalpen bereziak, mahaiak eta aulkiak).
- Megafonia (Kultur Etxea Fundazioarena).
- Taulatu txikia (Udalarena).

5.- XEDE TALDEAK ETA ADIERAZLEAK

Xede taldeak:


- Opor sasoiko kaleko kanpamenduak, 5-12 urte bitarteko haurrei zuzendua (unibertsoa): 800 haur (jarduera bakoitzeko bataz besteko partaideak 150 ume). Kasu honetan maila formalago batean eragiteko bidea erabiliko da, modu antolatuago batean.
- “Kalean olgetan” jolastokietan maila informalean eragitekoa, 5-12 urte bitarteko haurrei zuzendua. Xede taldea 800 batekoa (2017ko emaitzen txostenak adierazten digu egun bakoitzean “partaide” izan den bataz-besteko

haurren kopurua 100 batekoa izan dela, lekuaren eta egunaren arabera datuak aldatzen izanik).

- “Gaztelekuko zapatuak” eta “Gaztelekuko eguneroko dinamizazioa” deituriko azpiegitasmoak, 13-16 urte bitarteko gaztetxoei zuzendua (unibertsoa): 547 gaztetxo. Eguneroko erabiltzaile kopurua 30ekoa da eta zapatu bakoitzeko partaideen bataz-bestekoa 120 gaztetxo.

Adierazleak:

- Programa bakoitzean parte hartu duten gaztetxoen kopurua.
- Haur eta gaztetxoen artean euskararen erabilpenak izan duen bilakaerari buruzko datuak batzen ditugu (Soziolinguistika Klusterrak lau urterik behin egiten duen neurketa berezia).




Iturria: Soziolinguistika Klusterra (2016ko kale neurketa)

- **Belaunaldi gazteenak dira, 1989-2016 urte bitartean erabileran hazkunderik altuena bizi izan dutenak:** gazteen erabilera 45 puntu areagotu da, eta haurrek, berriz, 27,2 puntu gora egin dute erabileran. **Baina kezkatzekoa da haurren erabilerak behera egin duela 2006tik 2016ra ia 9 puntu, beste adin taldeena mantendu denean. Gazteena ere mantendu egiten da.**

- **Helduen erabilera**, oro har, 4 **puntu igo** da aztertutako hogeita zazpi urteko epean; 1989tik 2001era bilakaera positiboa (8 puntu gora) eta 2001etik 2016ra behera 4 puntu.
- **Adinekoetan**, berriz, **gutxika beheranzko** joera dago erabileran: 18 puntu. Beherakada horrek etena izan du 2011-2016 urte bitartean.

HAURREN PRESENTZIAREN ERAGINA ERABILERAN



Iturria: Soziolinguistika Klusterra

- Dakusagunez, **erabilerak nabarmen egiten du gora haurrak mintzakide direnean** (bai erdiguneko kaleetan zein ikastetxeetan. Ikastetxeetan haurrak eta nagusiak nahasian ari direnean %71,4ra igotzen da erabilera).
- Egindako neurketa desberdinetan (2001, 2006, 2011, 2016) antzeko joera ikusi da, baina gauza pare bat argitu behar:

1.- **Haurrak bakarrik daudeneko datuetan kezkatzekoa da azken 5 urteetan izan den beherakada nabarmena**, ikastetxetik kalera dagoen alde handia.

2.- **Nagusiak haurrik barik daudeneko datuetan jaitsiera izan da** eta haurrak eta nagusiak nahasturik daudenekoetan ere bai. Argitu behar baita ere, haurren presentzia soilak ez duela eragiten helduen/adinekoen erabileran, elkarriketetan parte hartzeak baino.

6.- AURREKONTUA

Gastuak (URE-hitza)

Azpiegitasmoak 13-16 urte bitarteko haurrentzat:	15.000
Gaztelekuko zapatuak..... 7.000	
Gaztelekuko eguneroko dinamika..... 8.000	
Azpiegitasmoa: opor sasoiko kaleko kanpamenduak 5-12 urteko haurrentzat	7.000
Azpiegitasmoa: “Kalean olgetan” programa (astegunetakoa) 5-12 urteko haurrentzat	10.000
Aurrekontua guztira	32.000

Gernika-Lumon, 2018ko urtarrilean.

Marisa Aldamizetxebarria
Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia
Hizk. Normalizaziorako Tek.

I. ERANSKINA

Gernika-Lumoko Udala eta Gernika Rugby Eskolaren arteko hitzarmena (2018rako, behar diren egokipenak egin beharko)

**URDAIBAI RUGBY ESKOLA ELKARTEAK
ETA GERNIKA-LUMOKO UDALAK
SINATURIKO HITZARMENA, UMEEI ETA
GAZTETXOEI BEGIRAKO “GAZTETXOEN
AISIALDIA EUSKERAZ” EGITASMOA
GARATZEKO - 2018**

Gernika-Lumoko Udaletxean, bi mila eta hamazortziko otsailaren-(e)an eta Udal Idazkaria naizen Jon Goikoetxea Etxebarria Jaunaren aurrean.

BILDUTA

Batetik, PATXI XABIER BARTOLOME jauna, adinekoa eta NAN zbk. 18.601.501-K, Urdaibai Rugby Eskola Elkartearen izenean arituz (G-95161980).

Bestetik, JOSE MARIA GORROÑO ETXEBARRIETA Jauna, adinekoa, Gernika-Lumoko Udaleko udal-batzarburua, 7/1985 Legearen 211.1.B) artikulua ezarritakoaren arabera udalaren izenean jarduten duelarik.

Eta baita Iñigo Magunagoikoetxea Agirre jauna (N.A. zk:) Gernika-Lumoko Kultur Etxea Fundazioko Presidente (aurrerantzean Kultur Etxea / I.F.K.: 9805503-A)

ADIERAZTEN DUTE

I

Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzuak, Euskararen erabilpenerako Udal Ordenantzan ezarritako xedeak oinarri, euskararen erabilpena normalizatzeko antolatzen dituen kanpainen artean, gaztetxoek astialdirako opor garaian eta zenbait ekintza antolatzen ditu (uztaileko “Udan zer egin” kanpaina, Gabonetako Jolas Parkea, jai ospakizunetako umeen jaialdiak,...). Horrekin lotuta, Kultur Etxearen menpeko Gaztelekua dinamizatu beharra azpimarratu zuen Euskara Zerbitzuak orain dela urte zortzi bat urte.

II

2001eko maiatzean sortu eta Eusko Jaurlaritzaren erregistroan AS/B/092226/2001 zenbakiarekin inskribatua izan zen Urdaibai Rugby Eskola Elkartea (aurrerantzean “URE Elkartea”), urtean zehar aisialdirako ekitaldiei lotura bat eman eta gaztetxoei zerbitzu iraunkor bat eskaini asmoz, egitasmo berezi bat eratu zuen asteburu eta oporraldietarako duela hamar bat urte.

III

Arestikoak kontuan hartuta, URE Elkartea eta Gernika-Lumoko Udalak 2002an sinaturiko hitzarmena indarrean mantendu dute orain arte, URE Elkartea dituen helburuekin bat eta bere jardura hedatzen joan den neurrian urteroko hitzarmenean egokipenak eginik (kasurako, 2004an “Gaztelekuko zapatuak” egitasmoa jarri zuten martxan 13-16 urte bitarteko gaztetxoentzat Gaztedi Arloko dirulaguntzarekin eta hitzarmen honi atxiki zitzaion). Gaur egun, hitzarmenerako aitzakia den egitasmoak lau azpiegitasmo ditu: “Asteburuetakoa aisialdia” (8-12 urte bitartekoentzat), “Gaztelekuko zapatuak” (13-16 urte bitartekoentzat), udako kaleko kanpamenduak (5-12 urte bitartekoentzat) eta “kalean olgetan” esperientzia pilotua (5-12 urte bitartekoentzat, 2017ko azken hiruhilekoan).

IV

Urdaibai Rugby Eskolak, 2018ko aurkeztutako proposamenaren arabera, hitzarmenari eutsi gura dio hurrengo baldintzetan:

- “Gaztelekuko eguneroko dinamika” (13-16 urte bitartekoentzat) programarako diru-kopurua 8.000 €.
- “Gaztelekuko zapatuak” (13-16 urte bitartekoentzat) programarako diru-kopurua 7.000 €.
- Opor sasoiko kaleko kanpamenduak 7.000 €.
- “Kalean olgetan” esperientzia pilotua (5-12 urte bitartekoentzat) 10.000 € (ikerketa ekainean, proposamena irailean eta urritik abendura garapena).

Lau azpiegitasmoak doanekoak izango dira haur eta gaztetxoentzat.

V

Kontuan hartuta euskararen normalizaziorako gaztetxoek astialdirako ekintzak sendotu eta zerbitzu horri iraunkortasuna eman beharra.

Kontuan hartuta egitasmo honen bitartez, gaztetxoak gizarteratzeko zerbitzu egokia abian jartzeko aukera egokia dela.

Kontuan hartuta Urdaibai Rugby Eskolak 2017ko urtarrilean proposatutako egokipenak Gaztedi Arloko Zinegotziak aztertu dituela eta tajuzkotzat jo dituela, Gernika-Lumoko Udalak eta URE Elkarteak honako ELKARLANERAKO HITZARMENA sinatzen dute. Horretarako, finkatu egiten dituzte hurrengo

KLAUSULAK

Lehenena.- URE Elkarteak:

- a) Oporraldietarako 5-12 urte bitarteko gaztetxoek aisialdia dinamizatu eta mantentzeko konpromisoa hartuko du.
- b) Lehenengo konpromiso horrekin lotuta, “Gaztelekuko Zapatuak” deituriko egitasmoari ere ekingo dio 13-16 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta.
- c) Gainera, opor sasoiaren (aste santuan, uztailean eta gabonetan kaleko kanpamenduak antolatu eta garatzeko konpromisoa hartuko du URE Elkarteak).
- d) Bestalde, Euskara Zerbitzuak 2017an egitasmo izan duen “Kalean olgetan” proiektuari buruzko esperientzia pilotuari jarraipena emango dio URE elkarteak; 2017ko urritik abendura garatutakoari eutsiko zaio 2018an.

Bigarrenena.- Aurreko klausularen ataletan aipatutakoa gauzatzeko, URE Elkarteak irakaskuntza zentroekin zuzenean landuko ditu harremanak, garatuko diren ekintzen berri eskola-umeen artean hedatzeko eta inskripzio-fitxa baten bitartez nahi dutenekin zerrenda bat osatzeko, ostean harreman zuzena eskutitz pertsonalez izan dadin, horixe baita lokarrik sendoena eta inplikazioa lortzeko erarik egokiena.

Hirugarrena.- URE Elkarteak, lehenengo klausulan aipatutako atalak hurrengo era honetara gauzatuko ditu:

Lehenengo klausulako a) atalari dagokionean: Eskola garaian (irailetik ekainerakoa), hilabeteko zikloetan antolatutako kirolezko bi jarduera (rugbyarekin lotuta), kulturazko bat eta aisialdiko beste bat. Larunbatetan zein igandeetan, edo bietan, eta, ekitaldiaren arabera, iraupena egun erdikoa edo egun osokoa izango da.

Lehenengo klausulako b) ataleko “Gaztelekuko zapatuak” deituriko egitasmoa dela-eta, urte osoko 36 ekinaldi antolatuko dituzte zapatuetan, 34 zapatu arruntetan gehi beste bi jaialdi berezi oporren hasiera eta bukaerarako. Ordutegia: 8:00etatik 12:00etara.

Oporraldian (lehenengo klausulako “c” atalari dagokiona):

- Gabonak.- Gabonetako kanpaina bost egunekoa izango da, tarte horretan ekintza desberdinak burutuz, hala nola, irteerak, eskulan tailerrak, zinemara irtenaldia, rugby jarduera, PIN-erako bidaia. Beti ere, Udalak antolatutakoarekin koordinatuko da guztia.
- Aste Santua.- Sasoi honetan lau eguneko kanpaina egingo da, eskema berdina izanik.
- “Udako kaleko kanpamenduak” deituriko egitasmoari dagokionean, ekainean antolatu eta uztailean garatuko da goizeko ordutegian (10:00etatik 14:00etara).

“Kalean olgetan”, “d” atalari dagokiona: 2017ko ekainean ikerketa burutu zen jolas-parkeetan Euskara Zerbitzuak emandako jairraibideen arabera, irailean proposamena aurkeztu eta urritik abendura esperientzia pilotua garatu. Dinamika horri eutsiko zaio 2018an.

Laugarrena.- Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzuarekin, Gaztedirako Ordezkaritzarekin eta Kultur Etxea Fundazioarekin bat jotzeko du URE Elkarteak, astialdia eta euskararen normalizazioaren bidean helburu mailakatuak gauzatzearren eta ekintza zehatzekin koordinazioa lortzeko.

Bosgarrena.- URE Elkarteak, eskainiko dituen zerbitzu guztiekiko txosten bat aurkeztuko dio Udaleko Euskara Zerbitzuari eta Gaztedirako Ordezkaritzari hiruhilabeterik behin, urte bukaerarako azken txostena eta egindako gastuen zuriketa egin behar izanik.

Seigarrena.- Gernika-Lumoko Udalak, arestian aipaturiko egitasmoekiko eskainiko duen aholkularitza eta bere zerbitzu-baliabideen laguntza orokorretik aparte, konpromiso zehatza hartuko du hitzarmen honen helburuak betetzeko 2018ko aurrekontuan 32.000 euroko diru laguntza aurreikusteko, jarraian aipatzen diren diru-partidetan banatuta:

I.- Gaztelekuaren dinamizazioari dagokionean:

- Lokala egokitu..... 600 €
- Materiala (jostailuak, mahai-jokoak, irakurtzekoak,.. 2.000 €
- Bi monitore astelehenetik barikura)..... 5.400 €

II.- “Gaztelekuko zapatuak” egitasmoari dagokionean, hona hemen aurrekontua:

- 34 ekitaldi (bi monitoreren orduak barru)..... 6.000 €
- Oporren hasiera eta bukaerako bi jaialdi x 300 €..... 600 €
- Kanpainarako kartelak eta zabalkundea..... 400 €

III.- Udako kaleko kanpamenduak (autofinantzatu egiten ez denarena):

- 7 monitore bi hilabetetan 4 ordu eguneko..... 6.000 €
- Materiala (irteerak, publizitatea)..... 1.000 €

IV.- “Kalean olgetan” proiektukoa:

- Ikerketa lana (2017an egin zen)
- Esperientzia pilotua burutzeko materiala/monitore... 10.000 €

Zazpigarrena.- Diru-kopuru hori, honako hitzarmena Tokiko Gobernu Batzarrak (Udalari dagokionean, “kalean olgetan” kanpaina, “Gaztelekuko zapatuak” egitasmoa eta “kaleko kanpamenduak egitasmoa”) eta Kultur Etxea Fundazioak (honi dagokionean, “Gaztelekuko dinamizazioa”) behin onartuz gero, zatika ordainduko da hurrengo era honetara:

- Gaztelekuaren dinamizazioa (8.000 euro): erdia apirilean eta beste erdia irailean.
- Gaztelekuko zapatuak egitasmoarena: (7.000 euro): erdia apirilean eta beste erdia apirilean eta beste erdia irailean.
- Kaleko kanpamenduak egitasmoarena (7.000 euro): maiatzean osorik.
- Kanean olgetan kanpainarena (10.000 euro): erdia apirilean eta beste erdia urrian.

Zortzigarrena.- Elkarlanerako Hitzarmen hau sinatu eta indarrean izango da urte beteko epean eta, behin igaro ezkerro, sinatzaile biek adostuko dute akordioa luzatu ala egoera berriari egokitu beharra.

Eta adostasunaren seinale, honako agiria sinatu dute ekitaldiko partaide guztiek, idazburuan aipatutako leku eta datan.

ALKATEA,

URE ELKARTEA,,

Jose Maria Gorroño Etxebarrieta

Patxi Xabier Bartolome

KULTUR ETXEKO
FUNDAZIO-BURUA

UDAL IDAZKARIA,

Iñigo Magunbagoikoetxea

Jon Goikoetxea



gernika-lumoko
euskara zerbitzua



II. ERANSKINA

“KALEAN OLGETAN” KANPAINARAKO HAUSNARKETAREN TXOSTENA

EUSKARAREN ERABILERARI BURUZKO KALE NEURKETA - 2016

HAURREN ERABILERARI BURUZKO HAUSNARKETA ETA SORTUTAKO KEZKAGATIK EGINDAKO PROPOSAMENA

Soziolinguistika Klusterrak 2016an egin du neurketa, metodologi zientifikoa eta baliabide teknologikoak erabilia. Neurtutako hiztun kopurua guztira (adin guztietakoak): 5.491 hiztun.

Kontuan hartu behar da haurtzat hartzen direla 12/13 urtera artekoak.

Neurketa horretako emaitza orokorren arabera moldatu dugu hurrengo hausnarketa, haurren erabilerari erreparatuta kezka sortu zaigulako.

Erabilera orokorra eta adin multzoka	2011 URTEA	2016 URTEA	
Erabilera orokorra	%52,00	5.491 / euskaraz 2.714	%49,4
Haurrak	%69,1	2.210 / euskaraz 1.312	%62,2
Gazteak	%54,8	356 / euskaraz 193	%54,21
Helduak	%43,3	2.425 / euskaraz 996	%41,01
Adinekoak	%36,1	600 / euskaraz 213	%35,5

ONDORIO NAGUSIAK

- 1) Haurrak dira euskararik gehien erabiltzen dutenak orokorrean, baina kezkatzekoa bada haurren erabilera orokorrean dagoen beherakada, **kezkagarriagoa** da haurren erabileran dagoen **aldea ikastetxetik kalera** (17 puntu gutxiago). Hona hemen datuak:

Haurren erabilera	2011 urtea	2016 urtea
Orokorra	%69,1	%62,2
Ikastexe inguruan	-----	%70
Kalean	-----	%52,6

- 2) **Eta are kezagarriagoa “haurrak bakarrik” daudenean** jasotzen ditugun 2016ko erabilera datuak (25 puntu gutxiago kalean ikastetxean baino):

Haurrak bakarrik ikastetxean 2016	Euskaraz %66,7
Haurrak bakarrik kalean 2016	Euskaraz %41,4

Dinamika hori (ikastetxetik kalerako aldea) aurreko neurketetan ere gertatu izan delako ustea daukagu, baina ez dago “haurrak bakarrik” daudeneko ikastetxe inguruko beste neurketetako daturik.

- 3) **Haurrak eta gurasoak nahastean daudenean, ostera, erabilerak gora egiten du**, bai gurasoen kasuan zein haurrenean ere; gainera, mantendu egiten da haurren erabilera altua ikastetxean zein kalean:

	Euskaraz orokorrean	Euskaraz haurrak protagonista	Euskaraz nagusiak protagonista
Haurrak eta nagusiak nahastean ikastetxean	%71,4	%76,3	%58,4
Haurrak eta nagusiak nahastean kalean	%56,8	%67,4	%43,4

PROPOSAMENA

Ezin utzi hemen aipatu barik **aurrekari batzuk**. Euskara Sailak sustatuta eta URE elkartearen eskutik, “**Asteburueta**ko **aisialdia**” deituriko egitasmoari 2002an ekin zitzaion, 6-12 urte bitarteko haurrei zuzenduta, eta bidean sartu zen “**Gaztelekuko zapatuak**” egitasmoa ere, 12-16 urte bitartekoei eskainitakoa Gaztelekuan bertan.

Urteak joan ahala, bidean geratu zen “Asteburueta”ko aisialdia” deiturikoa, diru falta aitzakia (2010ean...).

Orain, euskararen erabilerari buruz 2016an egin den kale neurketaren emaitzek kezka sortu digute. Haurrek, 5-12 urte bitartekoek, maila informalean (kalean) eta euren artean bakarrik ari direnean, erabileran beherakada nabarmena dute, ikastetxe inguruetako erabilerarekin alderatuta.

Horri konponbidea ipini nahian, **hausnarketa talde bat osatu genuen** 2016ko maiatzean (URE Elkarte, Kultur Etxeko zuzendaria, Gazteen Informazio Bulegoko arduraduna, Gazteria arloko zinegotzia, Euskara zinegotzia eta Euskara Zerbitzua), haurrek kalean dituzten harremanetan eraginkorrak diren variableak aztertze (jolas parkeak eta haurren bilguneak, adin multzoak eta haur tipologia, ekintza mota, biltzeko orduak eta egunak,...) eta, ondorioz, **soluzioak planteatzeko. Helburua:** 5-12 urte bitarteko haurren hizkuntza ohituretan eragin maila informalean (horra hor Donostian gauzatzen ari den pareko egitasmoa: PARKETARRAK).

Hausnarketarako oinarri gisa, Euskara Zerbitzuak honakoa luzatu zion URE elkarteari:

1).- Haurren jolas guneak (jolas parkeak) eta leku bakoitzean izan daitezkeen **variableak identifikatu (gurasoen presentzia, haurren adin multzoak eta tipologia, jolas motak, lekuko baliabideak, estalpe gunerik dagoen, biltzeko orduak eta egunak,...) eta **bi hilabeteko epean proposamen bat diseinatu**.**

2).- Diseinatutako egitasmoari ekin 2017ko urte bukaeran (hilabeteak zehazteke). Horretarako, Euskara Sailak gordetik daukan 4.000/5.000 euroko diru partida erabiliko da.

3).- Egitasmoaren garapenaz balorazioa egin 2018 urteari begira eta Udal saila desberdinen arteko elkarlanari (Kultur Etxea, Gazteri Arloa, Euskara Saila) eutsi, bakoitzak ahal duen diru ekarpenarekin **urte osoko egitasmoa borobiltzeko.**

URE Elkarteak KALEAN OLGETAN ekimena proposatu zuen iralean (1. Eranskina):

Egindako hausnarketari eutsiz eta guk emandako irizpideak kontuan, URE elkarteak proposamen zehatz bat aurkeztu zuen, KALEAN OLGETAN ekimena, bi hilabeteko esperientzia pilotoa burutzeko hiru jolas-leku desberdinetan (Pasealekuan, San Juan Ibarra plazan eta San Kristobal plazan), maila informalean eta zeharbidetik haurren erabileran eragin asmoz.

Horrez gain, badaukagu beste egitasmo baten berri:

Gaztetxoaren erabileragatiko kezkak eraginda, Iametzaren enpresarekin bildu zen Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua eta eurek azaldu ziguten Oarso-Aldeko Euskara Zerbitzuekin elkarlanean esperientzia bat diseinatzen ari zirela. Horren fruitu izan da Iametzak HPSri aurkeztu dion proposamena, Oarso-aldean eta Gernika-Lumon esperientzia piloto bat garatzeko: **“kuxkuxeroak” egitasmoa (2. Eranskina)**, 12 urtetik 18 urte arteko gaztetxoaren erabileran eragiteko (baliabideak: erreferente diren pertsoekin

solasaldiak, teknologia berrien erabilera,...). Zehaztasunak ezagutzeko irrikitan gaude, gure kabuz egiten ari garenarekin hori ere uztartzeko.

Guztiak izango ditugu beharrezko erabileran eragiteko, baina itsu-itsuan ekin beharrean, lehentasunak markatu, eragin guneak edo moduak ondo diseinatu eta patxadaz garatu behar dira eraginkorrak izan daitezen.

Gernika-Lumo, 2017ko iraila
EUSKARA ZERBITZUA

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria

Jolasen Kutxa: Egunean proposatzen diren jolasekin.
70cm altuera x 110cm luzera x 80cm zabalera



Banatzeko jolasen jarraibideak: Egunean
proposatzen diren jolasekin.



400w Soinu ekipoa
mikroarekin: Egunean girotzeko.



Kalean Olgetan: Lekuak.

- 1- Pasilekua: Futbol Kantxa. Euriarekin arkupean.
- 2- San Kristobal Plaza: Plaza erdian. Euriarekin etarteetan.
- 3- San Juan Ibarra Plaza: Plaza erdian. Euriarekin Merkatu Plazan.

D. Gurrutxaga
ASTRA

Kalean Olgetan: Datak:

Urria:						
16	17	18 Pasilekua	19 San Kristobal	20 San Juan Ibarra	21	22
23	24	25 San Juan Ibarra	26 Pasilekua	27 San Kristobal	28	29
30	31					
Azaroa:						
		1 San Kristobal	2 San Juan Ibarra	3 Pasilekua	4	5
6	7	8 Pasilekua	9 San Kristobal	10 San Juan Ibarra	11	12
13	14	15 San Juan Ibarra	16 Pasilekua	17 San Kristobal	18	19
20	21	22 San Kristobal	23 San Juan Ibarra	24 Pasilekua	25	26
27	28	29 Pasilekua	30 San Kristobal	1 San Juan Ibarra	2	3 ENE

Kalean Olgetan: Ordutegia:

17:30-19:30

Kalean Olgetan: Zer egingo da:

- 1- Ume eta gazteentzako euskal musikarekin girotu eta mikroarekin argibideak eman.
- 2- Jolasen kutxako materialak banatu eta jaso.
- 3- Ume eta gurasoei eguneko jolasen jarraibideen orriak banatu. Asmoa eguneko jolas bi aurkeztea da.
- 4- Jolasak dinamizatu.

Kalean Olgetan: Jolasak:

Soka saltoa, uztaiak, pilota bigunak (poto-poto, zalai errea,...), hankapalu txikiak, tronpak, puztarriak, txapak, tortolosak, kartak,...

Kalean Olgetan: Giza baliabideak:

Bi begirale euskaldun eta koordinatzaile bat.

Kalean Olgetan: Egitasmoaren logoa:





Urdaibai Kulturazko, Aisialdiko eta Kirol Elkartearen URE

URDAIBAI ESKOLA

143. Posta kutxa 48300 Gernika-Lumo Telef: 946255261

IFK.: G-95161980

AURREKONTUA:	AURREKONTUAREN DATA: 2017-10-15	BEZEROA: Gernika-Lumoko Udala Foru Plaza 3, 48300 P4805500H
---------------------	---	---

KONTZEPTUA		ZENBATEKOA																																																										
Kalean Olgetan 2017 egitasmo pilotuaren prestaketa eta dinamizazioa.																																																												
 Hartzaile zuzenak: 3-12 urte bitarteko ume eta gazteak.  Ordutegia hartzaileekin: 17:00-19:00.  Egitasmoaren egutegia eta garapen tokia: 21 ekintza egun.																																																												
Urria: <table><tr><td>16</td><td>17</td><td>18</td><td>19</td><td>20</td><td>21</td><td>22</td></tr><tr><td></td><td></td><td>18</td><td>19</td><td>20</td><td>21</td><td>22</td></tr><tr><td>23</td><td>24</td><td>25</td><td>26</td><td>27</td><td>28</td><td>29</td></tr><tr><td>30</td><td>31</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr></table> Azaroa: <table><tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td></tr><tr><td>6</td><td>7</td><td>8</td><td>9</td><td>10</td></tr><tr><td>11</td><td>12</td><td>13</td><td>14</td><td>15</td></tr><tr><td>16</td><td>17</td><td>18</td><td>19</td><td>20</td></tr><tr><td>21</td><td>22</td><td>23</td><td>24</td><td>25</td></tr><tr><td>26</td><td>27</td><td>28</td><td>29</td><td>30</td></tr></table>		16	17	18	19	20	21	22			18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31						1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	
16	17	18	19	20	21	22																																																						
		18	19	20	21	22																																																						
23	24	25	26	27	28	29																																																						
30	31																																																											
1	2	3	4	5																																																								
6	7	8	9	10																																																								
11	12	13	14	15																																																								
16	17	18	19	20																																																								
21	22	23	24	25																																																								
26	27	28	29	30																																																								
Begiraleak, koordinazioa eta antolaketa lanak (169,65€ x 21 ekintza egun) Jolas Kutxa (70x95x57) Jolas kutxaren moldaketa eta gehigarriak Jolas Kutxarako materialak Banatzeko informazio orriak, informazio kartelak, plastifikazioak eta fitxak Girotzako soinu ekipoa mikroekin alhokairua 		3.562,65€ 210,00€ 65,49€ 364,90€ 336,02€ 289,97€																																																										
GUZTIRA		4.829,03€																																																										
%10 BEZ		482,90€																																																										
AURREKONTUA GUZTIRA		5.311,93€																																																										